

ARAN

RIGOBERTA MENCHÚ

Zapalgailuak galkaturiko
asfalto geruza iraulirik
 –o, miraria!–
asfalto gainean gora zetorren
iratze mamitsuan, erreparatu nuen,
harriduraz, Rigoberta.
Oi, nahigabe zaharraren haur,
pobreziaren zarpail tristatu,
nekearen zamakari nekaezin hori!
 Zu ikusi,
eta bortxakeria gabeko indarrez
asfaltopetik argi zabalera irtenik,
harriduraz begiratu nuen
iratze mamitsuaz oroitzen naiz,
Rigoberta –miragarria zu–,
justiziaren gose eta egarriak
indartsu egin zaituen hori!
Zure herriko hainbat mila
anaia eta ahizpa
harrapatu eta eraitsi dituen
zurruparien sare hilgarririk
estu-estuka ihes egindakoa zara,
zeueneko sarraski isilaraziaren lekuko zoli,
gertakari latzgarrien narratzaile jori,
hitz azkarrezko eta kolore bizi pilazko
turrusta oparo,
diktadura zilindroak
luze eta tenkor galkaturiko
herri zapalduaren barru ilunetik irtena
 –o, miraria!–
bizitzeko eskubidea aldarrikatuz,
zeure herriaren iraupenari
zeure erraiak eskainiz,
lurrak edo eta
emakumeak bakarrik dezakeen emankortasunez zu,
oreka bidezkoa bilatuz
munduko gizon emakumeen artean,
eta hauen eta izadiaren artean
zentsuzko harremana markatuz.
Asfalto galkatua ireki eta irauli zuen
iratze mamitsuaren
bortxakeria gabeko indarrez zu,
eguzkia, ura eta hazia
lurrak adina gura dituzun
Rigoberta.
Esperantzari buruzko goiza argituz,
alaituz etorkizunaren ikuspegia,
bizimodu justuago baten ikuskizunez

desiragarri bihurtuz eskurakizun posiblea,
ezinaren lortzaile miresgarri,
bortxakeria gabeko indarrez, iratze kementsu;
Guatemalatik mundura zatoz zu
zazpi kolore biziz,
ostadar pozgarri,
bakearen Nobel sari.
Gora zu,
Rigoberta Menchú.